

Muskizko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat liburuak eta eskola materiala erosteko bekak eskatzeko arauak ezartzen dituzten oinarriak.

1. Xedea.

Deialdiaren xedea honakoa da: Dagokion ikasturterako liburuak eta eskola materiala erosteko gastuetan diruz laguntzea eta diru-laguntzen baldintzak arautzea.

2. Aurrekontua.

Hezkuntza Sailak deialdi bakoitzean horretarako duen aurrekontua adieraziko du.

3. Onuradunak.

Muskizen erroldatuta dauden eta EAEko ikastetxe publiko edo pribaturen batean Lehen edo Bigarren Hezkuntza egiten ari diren ikasleek izango dute laguntza hauek eskuratzeko aukera.

4. Kanporaketak.

Ondorengo hauek diru-laguntza deialdi honetatik kanpo geratuko dira:

- a) Deialdia egiten duen Sailarekin zerikusirik edo loturarik ez dutenak.
- b) Beste Erakunde Autonomo edo Udaleko beste Sail batzuen programetan egon beharko lirakeenak. Kasu horretan, dagokion Sailera edo Erakundera bidaliko da eskabidea, interesatua jakinaren gainean jarriko delarik.
- c) Laguntza izenduna xede duten programak eta Sail honen barruan beste deialdi batzuetan egokiago leudekeenak.

5. Aurkeztu beharreko agiriak.

Laguntza hauen onuradun izan nahi duten pertsonak honako dokumentazioa erantsi beharko diote euren eskabideei:

1.-Deialdi bakoitzari atxikita egongo den eskabide orria. Horrekin batera agiri hauek gutxienez aurkeztu beharko dira:

Ikaslearen datuak

Aita, ama edo tutorearen datuak.

Familia-unitatearen urteko diru-sarrerari buruzko informazioa.

Familia-liburuaren fotokopia.

Eskariek ez balituzte eskaturiko datu guztiak bilduko edo oinarri hauetan eskaturiko dokumentazio guztia aurkeztuko, hamar eguneko epea emango litzaieke datu guztiak biltzeko edo dokumentazio guztia aurkezteko; eta horrela egingo ez balute, eskaera baztertu egingo da.

Jardueren inguruko dokumentazioaz gain, Udalak diru-laguntza eskatzen dutenei behar duen beste informazio eska diezaieke.

6. Eskabideak aurkezteko epeak.

Deialdiaren argitalpenetik 30 egun naturaleko epea.

7. Diru-laguntzak ebaluatzeko eta emateko irizpideak.

Eskaerak honako irizpideak kontuan harturik baloratuko dira:

1. Familia-unitateko kide kopurua.
2. Familia-unitatearen diru-sarrerak, guztira.

Datu faltsuak edo osatugabeak aurkezten dituzten eskaerei ezetza emango zaie.

8. Ebazpenaren jakinaraztea

Behin eskaeren ebazpena eginda, dagokion Sailak eskatzaile guztiei idatziz jakinaraziko die, emango dien diru-kopurua bankuan sartuko dielarik ondoren.

9. Diru-laguntzen justifikazioa eta itzultzea.

Muskizko Udalak bankuko kontuan sartu zaien diru kopurua erreklamatu ahal izango die eskatzaileei, datuak edo agiriak faltsuak direla egiaztatzen badu. Laguntzak ordaindu eta gero ez dira justifikatu behar.